

NORBERT TAUERREN ONDASUNA

Edozein hizkuntzatako literaturan garrantzizkoak dira idazleen gutunak, maiz horietan azaltzen bai dituzte egile edo autoreek bere obretan jarri ez dutenik. Gutunez, adiskideki, aitortzen bai dira barnetikako gogoeta, kezka, pentsaera ta abar, bereziki publikatzera ausartu ez denetik. Pragako Norbert Tauer izan zen euskal idazle askorentzat pertsoma konfiantzazkoa beren pozak, ezbeharrak, minak eta zalantzak egertzera-koan, Tauer zenaren neurririk gabeko euskaltzaletasunak guztientzako eramankortasuna zuenez gero.

Norber Tauer txekoslovakiarrek gerraondoko euskaltzale guziekin izan zituen harremanak, eta hemen, bertako egoeraz, pentsamenez eta sentieraz, Franco eta bere kideek jarri ziguten diktaduragatik ezer esaterik eta ezer idazterik ez genuenez, askorentzat, N. Tauer izan zen testafarro edo holako zerbait egingo zuen gizona. Makinatxobaten negarrak eta asmoak jaso zituen; bakoitzak bere penen, ekintzen edo ikuspegien berri emanaz. Horregatik, bere gutundegia gerraondoko euskararen historia da. Han bai daude bestetan aurkitzen ez diren agiriak.

Egan-en aurreko zenbakian (1983, 1-6, 23-48 orr.) G. Arestik literaturari buruzko kezkaz idatzi zizkionak agertu genituen. Literaturatik apartekoak *Euskera* aldizkarian agertuko direnez. Muestratxo horrek ematen digu gutundegi horren balioa zer denaren adierazpena.

J. M. Satrustegiren eskutik eta bere adierazpenez etorri ziren Tauerrek Arestiri idatziako hamar gutunak eta Arestik ihardespenez egin zizkion zazpirak. Guziak euskal literatura eta euskararen egoerari buruzkoak.

Gutundegi baliagarri hori, N. Tauerrek, bere hilburukoan, Euskaltzaindiari eskaini zion eta J. M. Satrustegi idazkariaren bidez erakunde horren Azkue Bibliotekako agiritegira pasatu da.



*N. Tauer-en liburuak exlibris
hau daramate ezaugarritzat.*

Gutziz, 6.326 gutun dira, 384 pertsonakin izandako harremanetakoak. Bitik gora idatzi zituzten Euskal Herriko pertsonen artean 246tik 5.939 gutun; beste 116 pertsonak (tartean elkarteren bat ere bada) gutun bana. Horiez gainera badira zenbait atzerritarrenak ere, hizkuntzalariak gehienak.

Gabriel Arestiren gutunak, guztiz, 26 dira. Aurkibidez ondo sailkaturik daude eta odonorrentzat izan daitezke aztergia. Aurreko *Egan*-en argi erakusten da, Arestirenak bide, horien balioa. Jon Miranderenak 45 gutun omen dira eta horietarik eginen duen hautapenez beste lantxo bat prestatuko duen esperantza agertu digu Satrustegi berak. Hala bedi.

* * *

Baina, laburki bederen ikus dezagun Norbert Tauer nor zen. Atzerritar euskaltzaleen artean izan da bera baino jakitunagorik, baina ez euskaltzaleagorik. Euskararik ez dakiten aber tzaleek hura hartu baluke eredu, euskara salbatzeko biderik erdi egina zegoen.

Zenbait aldiz errepikatu zigun:

*Bizi bedi betiko euskara eztia,
Zuen aurrekoen ta ait'amen elia.
Euskaraz egizute toki guzietan,
Ta batez ere beti zuen sendietan.*

Hitz-neurtuzko kontseilu horrekin bukatzen zuen Praga-ko Tauer euskaltzale suharrak *Bere idazkiak* (1962) zeritzan liburuxka.

Aitortu beharra dago, bere deiak, euskaldun askoren baitan piztu zuela euskaltzaleetasuna eta ez dira guti euskaraz idazten jarri zituenak ere. Euskara ikasi, gure literatura ezagutu eta «euskaldunei euskaraz» esaldia ikurtzat hartuz abiatu zen euskaldunongana, gure kultur aldizkarietan artikulak argitaratuz eta euskaldun askori gutunak idatziz. Jokaera horren ondoriozkoa izan zen 1955etik 1962ra Buenos Aires-ko Euskaltzaleak zeritzan elkarteak eratu zituen eskutitzen norgehiagokak bata bestearen ondorean Tauer-ek irabaztea. Horregatik, samingarria zitzaigun 1983ko urtarrilaren 28an Pragatik iritsi zitzaigun berri beltza: Norbert Tauer hil zela.

Euskarazko kultur aldizkarietan idatzi zituen artikuluez gainera milakak gutunak idatzi zituen euskaltzaleentzat. Gutunon muestra tipi bat baizik ez da *Bere idazkiak* liburua. Hala den bezala G. Arestiri buruzkoan *Egan*-en aurreko alean agertu zena bera. Baina epistola bilduma hutsa ez da arestian aipatu dugun liburutxo hori, zeren gutunez gainera dakarrena ez baita bertako hitzaurre luzea bakarrik, bukaeran berak ondutako bost olerki ere baditu, denak Euskal Herri eta euskararen goresmenez. Aldiz, berak ere jaso zituen hemengoan goresmenak eta, besteak beste, Euskaltzain ohorezko genuen, Buenos Aires-ko Euskaltzaleak deritzan elkarteak ere ohorezko bazkide

izendatu zuen eta Instituto Americano de Estudios Vascos erakundeak bere taldekide hartu.

Hemengo aldizkarietara euskaraz idazteaz gainera, Txekoslovakia-koetan euskara eta euskaldunon berri ematen ere ahalegindu zen.

Euskarazko lehen lana 1928an Donostiako *Argia*-n publikatu zuena izango da noski. Han ordea, «Baskové» (Euskaldunak) *Narodni obzer* aldizkarian 1936an argitaratu zuena. Geroago, hemengo egoera iluna ezaguturik, «Baskovtina a její dnesní situace» (Euskara eta oraingo bere egoera) 1965ean. Baina, lanik garrantzitsuena, Espainia eta Portugalko idazleen hiztegiari (*Slovník spisovatelů. Španělsko portugalsko*) eskaini zuen lan hura da. Praga-ko Odeon argitaletxeak 1968an argitaratua. Elkarlanean osatua zen, gaztelera, portugesa, katalana eta galegoarekin batean euskarazkoa barne zela. Euskarari buruzko lana Tauerrek egin, sarreran gure literaturaren historia labur bat duela eta liburuaren barruan, euskaldun idazleen berriak beste lau hizkuntzakoekin batean.

Praga-ra heltzen ziren euskaltzaleak bisitatzen zuten Tauer eta duela bi urteko udagoienez Satrustegi eta Hernandorenan bisita izan zuen, lau urte lehenago nerea izan zuen bezala. Ikus *Bidez* liburuaren 412-420 orrialdeetan garai hartan eman nituen berriak. Ordurako kezkatuak ginen bere liburutegi aberatsak eraman zezakean burubideaz, zeren Tauer-ek ez bai zuen inordekorik, bere emazte Franziska eta iloba batzuk baizik. Bere borondatea ordea, Satrustegiri agertu zionez, Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekara ematea zen. Baina, handik ekartzeak bere zereginak zituen.

Gure mende honen haseran, Tauer, Euskal Herriak beragan dituen berezitasunekin txoraturik gelditu omen zen eta Campión-en *Gramática bascongada*-z euskara ikasten hasi. Atzerri-
tar gehienei gertatu zaien bezala, gure hizkuntzaz liluraturik gelditu zen eta bere esaldia izan zen: «Euskara, munduko hizkuntza guztien artean ederrena ta bere egituragatik harrigarriena da».

Gerraondoko euskaltzaleontzat bere garrantzia izan zuten euskaldunoi dei eginaz idatzi zituen artikulu aipagarri haiek:

«Bizi bedi geure Euskara maite maitea» (gutun erara egina, «Neure euskaldun gazte maite maiteak» deiaz hasia, (*Azkatasuna* aldizkarian, 1946-X-15); «Euskal literaturari buruz» (*Euzkogo-goa*, 1951, 7-8 zenb.); eta «Euskararen pizkundera» (*Euzko-Deya*, México, n.º 226. Pragatik 1959an bidalia). Gaur egungo ikuspegitik lehen baino balio gehiago duten idazlanak, euskaldun asko euskaragatik etsipendurik bizi ziren garaia izatez. Bestalde, gerragatik herbesteraturik agertu ziren euskaldunei itzaropena eta berriz idazteko arnasa berritua eskainiz. Beraz, ezta erraz neurtzekoa Norbert Tauer euskaltzale kartsuari zenbat zor dion gure egunotako berpizkundeak.

Bera, izatez, Txekoslovakiaiko Plzen-Pilsen hirian sortua zen 1898. urteko ekainaren 6an. Merkataritzarako ikasketak egin zituen eta zenbait hizkuntza menderatzera iritsi zenez, Enbadako merkataritzaz arduradun izana (agregado komertzial mailan) Paris eta Madrid-en, gure herria ezagutzeko aukera izan zuen. Azken urteetan, jubilazioa hartu arte, Pragako Udaletxean lan egin zuen.

Pragan, Vinohradská kaleko 126.ean ez zitzaion falta euskal girorik bere azken urteetan, ikurriñaz gainera bi lauki Valentin Zubiaurre pintorearenak, Lucas-ena beste bat, pizkunde garaiko espainiol bargeiño bat ere bazuen *hall*-ean, eta Euskal Herriko zenbait argazki laukietan jarriak. Horrez gainera, biblioteka handi bat euskarazko eta euskal gaiezko liburuz hornitua eta gutundegizko agiritegi berezia, harremanak zituen euskaldun eta euskaltzaleenak, guziak egoki antolatuta, pertsona bakoitzarenak karpeta berezi batean jarririk. Hor ematen zituen Tauer zenak orduak eta orduak, bere emazten Franziskaren laguntzaz, berea bezala sentitzen zuen Euskal Herriaren oroitzapenetan.

* * *

Tauerrek, bere liburutegian ale bitxietarik ere aski zuen. Denak ekartzea ezinezkoa zenez, hautaketa egin beharra zegoen: Kardaberaz, Xurio, Larramendi, Diharassarry, Ubillos, Haraneder, Royaumeont, M. Salaberry, Barbier, Haristoy..., autoren XVIII eta XIX. mendeetako edizioak; Astarloa, Darri-

got, Xaho eta beste zenbait apologistaren lanekin batean Baltasar Etxaberen *Discursos...*, México-n 1607an argitaratua, Perotxegiren *Origen...*, Iruinean 1760an argitaratua (Honenik bi ale baizik ez omen dira ezagutzen osorik, beretako bat Madrid-en Biblioteca Nacional-ean). Horiekin batean, Ebagelio itzulpenak eta Kantika Izpiritualak ere bai, hauetako ale bat xilografiazko grabaduz apaindua.

Liburu bitxi horien artean berezietakoak dira Julien Vinson-ek Collection de Curiosités Basques sailean argitaratu zituen ale haiek eta beretarik bi heldu zaizkigu Azkue Bibliotekara. Merezi du beren xehetasunak hemen ematea, zeren 75 ale soileko inprimaketak izan zituzten eta beraietarik 74. zenbakidunak bai dira. Hara zer diren:

Les petites oeuvres basques de Sylvain Pouvreau (Chalon-sur-Saone, 1982). 20,5 x 13,5 zm. — XVI+99 orr.

L'office de la Vierge Marie en basque labourdin par C. Harizmendi (Chalon-sur-Saone, 1901). 20,5 x 13,5 zm. — XV+132 orr.

Biak Vinson-ek bere hitzaurrez eta oharrez argitaratuak. Gipuzkoako Foru Diputazioaren Urkixo Bibliotekan biak daude. Hauek 57. zenbakia daramate eta hain bitxiak direnez, Leizarragaren Testamentu Berriaren lehen edizioa (1571) eta beste zenbait liburu bitxi edo arrarorekin batean seguritatezko kutxa berezi horietako batean gorderik daude.

Vinson-ek hitzaurreetako batean dionez, Euskal Literatura balio gutikoa da, bere edukina itzulpenezkoa denez gero beste hizkuntzetan pentsatuaz oinarritzen baita. Hala ere, Villasantek bere historian azaltzen digunez hori ez da guztiz egizkoa Axular adibidezko jartzen baldin badugu. Dena den, hizkuntzentzat beharrezkoenatarikoa da bere baitarik sortu beharra eta behin eta berriz errepikatuko dugu idazleei lagundu beharra eta sorketazko literaturgintza bultzatu beharra.

Baina, Tauerren ondasunetik jaso ditugun bi ale bitxi horiek oso estimagarriak dira eta Julien Vinson-ek, bere bibliografiazko lan harekin ez ezik gainerako beste zenbait lan biltzen eta argitaratzez laguntza ederra eskaini zigun. Vinson-ek hor

eskaintzen dizkugu, bere hitzaurre hortan, XVII. mendeko S. Pouvreau-ri buruzko zenbait berri interesgarri, era berean Pariseko Bibliothèque Nationale-an *Celte et Basque* sailean dauden obrak haintzat hartuz, garai bereko beste zenbaitzunik aipatuz.

Bigarrenaren eraskinean, M. E. S. Dodgson-ek Oxford-ik ematen dion berria dakar, Bibliothèque Bodleyenne delakoan Harizmendiren *Ama Virginaren hirur officioac* deritzanaren ale baten aurkitzeaz, Bordelen 1660an argitaratua, eta bere azalaren fotokopia ematen du azken orrialdea.

Gutundegia aberatsa bada ere jasoak diren liburu horiek ere ez dira txantxetakoak. Gainera, liburuetarik zenbait Julien Vinson berarenak izan ziren eta horiek larruz oso ongi enkua-dernatuak daude, joan zen mendean Paris-en ohi zen bezala.

J. S. M.